

Karobi elkartean hitzaldia, ipuinak eta afaria, urteurrena ospatzeko

■ Datorren asteazkenean karobiei buruzko hitzaldia ■ Ostegunean haurrentzat ipuin kontaketa eta txokolatada ■ Ostiralean, abenduaren 28an, berriz, urteurren afaria Karobi elkartean.

URTEBETE da Marielutsen Karobi elkarte zabaldu zutela. Berez, sortu duela ia bi urte egin zuten, orduan hasi baitziren bilerak egin, junta sortu eta tramite guztiak aurrera eramaten. Karobik abenduaren 28an egin zuen lehen inaugurazioa. Gero, urtarrilean herrira begirakoa. Orain, zenbait ekitaldi antolatu ditu urteurrena ospatzeko.

KAROBIAK
Karobiak labe bereziak dira, kareharria kiskaldu eta karea egiteko erabiltzen ziren labeak. Hernanin ere badira. Karobiei buruzko guztia Fermin Leizaola Arantzadiko etnologoak esplikatu du argazki eta guzti. Hitzaldi horrekin Karobik bere elkartearen izenaren jatorria eta esanahia ezagutu nahi ditu. Abenduaren 26an 19:00etan.

Hitzaldiaz gain, Karobi elkarteak umeentzako ipuin kontaketa eta txokolatada antolatu ditu. Ostegunean, abenduaren 27an, izango dira. Arratsaldeko 17:00etan ipuinak eta 18:00etan txokolatea.

URTEURREN AFARIA
Abenduaren 28an Karobiko bazkideek urteurrenko afari ederra izango dute. Denera,

100 lagun inguru bilduko dira, eta beste elkarteetako ordezkariak ere hor izango dira. Izena emateko zerrenda zabalik dago, eta apuntatzen diren lehen 80 bazkideentzat egongo da le-kua. Afalondan herriko bi bertsolarik kantatuko dute eta Tute Txapelketako sariak ere afalondan banatuko dira. Karobi elkarteak Eguberri ona opa die guztiei. □

Txistulari kontzertua

TXISTULARI Bandak Eguberriko kontzertua emango du bihar, igandea, Milagrosan. Obra batzuk pianoarekin lagunduko dira eta horretan Hernani Musika Eskolako ikasleak arituko dira.

Kontzertuan 9 obra joko dituzte Patxi Apezetxea zuzendari dutela. Eguerdiko 13:00etan da. □

'Hator hator' presoan alde

ETXERAT elkarteak presoan aldeko ekitaldi antolatu du Eguberri bezperarako. Elkarrekin Kantari ateratzen diren talde guztiei dei egin die, 20:00etan Gudarien plazan *Hator hator* abestia kantatzeko "presoak lehenbailehen Euskal Herrira etor daitezen". □

BERTSOLATA

Xiberuako kantuar gaur

BERTSOLATAN Xiberuako kantariak gaur Arizmendi jatetxean: Niko eta Dominika Etxart eta Larralde. Sarrerak Aralar eta Garin tabernetan daude salgai, 2.500 ptan. Afaria 21:00etan.

400 ahots Gabon kantuar kantari

■ Sekulako kantaririk gehiena izan zen Kantuzek antolatutako kontzertuan ■ Aurten ere, eliza lepo bete da.



Hernaniko 10 koruak osteguneko kontzertuan, Haurtxo Maitek kantatzen.

KANTUZ abesbatzak urtero antolatzen du Gabon kantuen kontzertua. Aurtengoa ere sekulakoa izan zen. Hamar koru izan ziren, eta denera 400

kantaritik gora aritu ziren Juan Bataiatzailea parrokan. Koru bakoitzak bina kantu abestu zituen. Ozenki abestaz eta guzti etorri zen,

Meltxor, Gaspar eta Baltasarrrez jantzita aritu baitziren kantu batean. Bukaeran, denek Haurtxo Maitea kantua abestu zuten. Aurten ere jen-

deak oso ondo erantzun zuen eta eliza bete-bete zen. Entzuleek gogoz eta bero jo zuten txalo. Antolatzailerak oso pozik gelditu ziren. □

Mus txapelketak Antziola tabernan

ANTZIOLA tabernan mus txapelketa bereziak dira hilaren 22, 24, 29 eta 31ean eta urtarriaren 5ean. 16:30etan.

expert TELEBISTAK - BIDEOAK - BIDEOKAMARAK - ETXE TRESNAK

ANEXO

Gabonetan eskaintza bereziak:
- **RADIOLA** telebista 14": 24.900 pta
- **DAEWO** telebista 20": 36.900 pta

Izpizua kalea 21 - Tel. 943 55 03 81 - 20120 HERNANI

BADATOR OLENTZERO, BADATOR

ZATOZ TXIMELETARA ZURE OPARIAK AUKERATZERA
Txirrita, 10 ☎ 943 552395 - HERNANI

ITXASPE
ARRANDEGIA

Arrai eta marisko lotearen zozketa.
Zenbaki saritua: 7.732
(agertu ezean, ordezkioa: 5.282)

ITXASPEtik gabon jai zorian suak opa dizkizuegu hernaniar guztioi.

Antziola 5 - Tel. 943 330 365
20120 HERNANI

Antziola-Motor
Zerbitzu Ofiziala

Ikusi al duzu Mondeo berria?

Antziola Motorren ikusi eta probatu egin dezakezu.

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

- Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
- Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- Aseguruen gestioa
- Finantziarioak
- Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

Honako eskeintza hauek dauzkagu zuretzat:

mobila: SIMENS M35i
9.900 pta kontratuarekin.

mobila: PACK ACTIVA
14.900 pta (Telefono guztietan 8.000 pta deietan)

Telemar

ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

MoviStar Activa
Hartu eta hitzegin

Xenon
Hernani
Telemar

ORDENAGAILUTAN
ESKEINTZAK

AMD XP 1500
80 GBko diskoa,
512 MBko memoria,
17"ko monitorea..

166.386 pta + %16 a Bez.
Beste hainbat ordenagailu
49.900 ptatik . 3 urteko garantia.

Hernaniko xake taldea Gipuzkoako bigarren mailara igo da

■ Aurten bigarren gelditu dira errenteriarren atzetik, Gipuzkoako hirugarren mailan ■ Jokalariek bilera dute datorren asteazkenean, Kirol Elkarteko lokalean.

HERNANIKO xake taldea fin ibili da aurtengo denboraldian. Gipuzkoako hirugarren mailan bigarren geditu dira hernaniarrak, eta lehenengoekin puntuz berdinduta, gainera.

Bigarren geldituta mailaz igo da Hernaniko xake taldea. Datorren urtean Gipuzkoako bigarren mailan jokatu dute. Baliteke datorren urtean bi talde ere ateratzea.

ASTEAZKENEAN, BILERA
Datorren asteazkenean bilera izango dute xake jokalariek guztiak. Kirol Elkarteko lokalean, arratsaldeko 20:00etan. □

‘UTZI HERNANI PAKEAN’

Pala txapelketa

■ UTZI Hernani Pakean taldea ekintzak antolatzen ari da, 2000 urtean atxilotu zituzten hernaniarren fidantzak ordaintzeko. Pala txapelketa da azkena antolatua. Txili, Aker, Garin, Ekos, Zintzarri, Kitto, Irintzi eta Izkiña tabernetan eman liteke izena, abenduaren 27a baino lehen. Bikoteko 2.000 pta dira inskripzioa.

URUMEA IKASTOLA

Zenbaki saridunak atera dira

■ URUMEA ikastolan Gabonetako bi saski zozketatu dituzte. Bi zenbaki sarituak 5000 eta 0019 izan dira. Bi zenbakien jabeek izango dute Gabonetan zerekin gozatu.

Barrikotea gaur Elutxetan, Larrañaga eta Mañukortarekin

■ ELUTXETA sagardotegian barrikotea egingo dute gaur gaueko 21:00etan. Bi bertsolari ariko dira kantuan: Gregorio Larrañaga *Mañukorta* eta Angel Larrañaga. Joan nahi dutenek 943 556981 telefonora deitu izena emateko.

KIROLAK - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	WATERPOLOA	TALDEAK	NON	NOIZ
Gorengo maila	Mutriku-Hernani	San Migel	Bihar, 15:30	Eusk.H. Liga	Santurtzi-Hernani	Santurtzi	Bihar, 20:15
Gazteen ohor. liga	Hernani-Pasaia	Zubieta	Gaur, 16:30	ERRUGBIA	TALDEAK	NON	NOIZ
Kadeteen 2 maila	Hernani-Urnieta	Zubieta	Gaur, 09:30	Seniorra. 1. maila	Hernani-Gernika	Landare	Bihar, 12:00
Emakume. Liga	Hernani-Antoniano	Zubieta	Bihar, 11:30	Jubenilak	Ordizia-Hernani	Ordizian	Gaur, 16:00
BOLEIBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	Kadeteak	Gipuzkoako bilkura	Ordizian	Gaur, 10:30
1. Autonomika	T. Santand.-Hernani	C. de la Sal	Bihar 12:00	Infantilak	Gipuzkoako bilkura	Landare	Gaur, 10:30

PELOTA	BIKOTEAK	BIKOTEAK	NON	NOIZ
Eskuz binaka kadeteak	Arrieta-Gurrubaga	Mundarro	Kiroldegian	Gaur, 14:30
Eskuz buruz buru juveniak	Olegi	Illunpe	Kiroldegian	Gaur, 14:30

Bihartik aurrera Kronikako 2002ko egutegia salgai

‘Askatasuna’ erakundeak mobilizazioak antolatu ditu

■ Garzonen erabakia kritikatu du Askatasunak ■ Bestalde, denda zabaldu dute, “presoei laguntzeko”.

‘ASKATASUNA’ erakunde berriak (orain arte Gestorak) zenbait mobilizazio antolatu ditu Gabonetarako.

Astelehenean (Eguberri bezpera), Presoen aldeko *Mani Kalejira* egingo dute, Olenzero eta guzti. Arratsaldeko 20:00etan irtengo dira Gudarrien plazatik (bukaeran, kilo angula zozketatuko dute).

Abenduaren 30erako Martuteneko espetxera martxa antolatu dute. Bi puntutatik irtengo da jendea, 11:00etan: Astigarragako poligonotik eta Egiatik. 12:00etan ekitaldi politikoa izango da.

Horrez gain, bat egin du Askatasunak *Ettxerat* elkarteak presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko egiten duen hileroko kontzentrazioarekin. Abenduaren 28an, datorren ostirala, 20:00etan Gudarrien plazan.

DENDA, KARDABERAZ-EN
Kardaberaz kalean denda zabalik da, aurtun ere, presoei laguntza ekonomikoa emateko. Erropa, egutegiak, poltsak, musika, puzzleak, arte lanak, postalak eta abar daude salgai. Urtarilaren 7 arte dago zabalik.

ERAKUNDE BERRIA

Askatasuna erakunde Gestorak eta Koordinaketa (Iparraldekoa) elkartuta sortu da. Garzonen azken epaian Gestorak legez kanpo utzi ditu. Orain, erakunde berria sortu da. Askatasunak, Kronikari bidalitako prentsa oharrean, “oinarri juridiko eta frogarik gabea” juzkatzen du Garzonen autoa. Horrez gain, dio bere egiten dituela “preso eta errefuxiatuei laguntza ematea, tortura salatzeta eta Euskal Herriarentat irtenbide demokratikoa bultzatzea.” □

ESKELAK

† INAZIO GOÑI MUJICA

JAUNA

Atzo hil zen, Hernanin, 77 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.



-Goian bego-

Emaztea: Maria donabera Garmendia. Seme-alabak: Rafael eta Mari Karmen Etxebeste, eta Jose Inazio. Bilobak: Laura eta Ane; Ezkon anai-arrebak: Jose Antonio Donabera eta Alizia Prieto, Martina donabera eta Samuel Marrodan, Maria Asuncion Olaizola eta Porfidio Fernandez. Iloba, lehengusuak eta gainerako senideak. Haren aninaren alde otoiz egiteko eskatzen dizuete eta arren etortzeko GAUR, LARUNBATA 22, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN JOSE OBRERO parrokian (Florida), egingo den hiletara. Aldez aurretik eskerrik asko.

Hernanin, 2001eko abenduak 22

Helbidea: Montebideo 9, ezkerreko eskailera, 1 B
OHARRA: Hil kapera zaharren egoitzako Tanatorioan dago.

IRAGARKI MERKEAK

■ Etxe bila gabiltza, erosteko. Gutxieneko 4 gela, eta terreno edo terraza duena.

Deitu 626-86 92 79

Gabonetan ...PREZIO BEREZIAK

YONE
boutique

Kale Nagusia 63
-Hernani-

Hipodromo etorbidea
-Lasarte-

OIALUME BILTOKIA.

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia
19:30etatik aurrera

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

marigorri

Gabonetako oporretan gure ohiko ordutegian izango gaituzue!

Zorionak eta ondo pasa.

- ▶ 1 eta 8 urte bitartean.
- ▶ Ordutegi zabala: Setatik 20ak arte
- ▶ Ikastolara haurrak eraman edota ekarri.
- ▶ Urtebetetze jaiak ere ospatzen ditugu.

HAURTZAINDEGIA - LUDOTEKA ORDUKA
Latxunbe-Berri, 2 - HERNANI ☎ 943 55 22 00

MURUA
1966an SORTUTAKO ETXEA

35 urtetik gora haragirik onena eskeintzen.

HARATEGIA - URDAITEGIA

Hernaniar guztiok eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

ZORIONAK ETA ONDO IZAN!

Larramendi 17- 943 55 03 32 - HERNANI

ETXEKO KUTIXIRIK ONENAK ZURETZAT

SKODA
AUTO

Skoda Fabia Sedan. Egin ezazu amets.

MENABI
Txingurri pas. 26 - Herrera auzoa - DONOSTIA Tel. 943-40 42 43